

Laudioko Nazioarteko Ziklokrossa



Laudio
Urtero urrian

Negua iristean, hotza itzultzen da, lokatza itzultzen da...ziklokrossa itzultzen da.

Laudion burutuko da Laudioar Txirrindulari Elkarteak antolatutako proba hori. 2.750 metro izango ditu probak eta C1 lizentzia, nazioarteko mailako altuena. Espainiako koparako kontatzeaz gain, UCI sailkapenerako puntu baliotsuak ere jarriko ditu jokoan.

Hitzordu horrek kadete, junior, sub23, elite, master 30, master 40, master 50 eta master 60 kategorietako partaideak ditu, gizonezkoen nahiz emakumezkoen kategorietan.

Hitzordu horretan, nazioarteko partaidetza esanguratsua ere egon ohi da, Laudioko Ellakuri landetaraino joango diren modalitate horretako zaleen gozamenerako.